



Euskararen berri OLAtu gainean

2014ko iraileko ALBISTEAK

Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko neurriak Oartzunen

Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilguneak eta Oartzungo Udalak duten hitzarmenari esker, herriko ostalari eta merkatariek euskaraz ikasteko aukera dute.

Oarsoaldeko hitza: <http://oarsobidasoa.hitza.info/2014/09/16/merkatararitza-eta-ostalaritza-euskalduntzeko-neurriak-oartzunen/>

`.eus` domeinu-izenak eskatzeko epea ireki da

Fase hau, batez ere, elkarte, enpresa eta instituzio publikoen domeinu-izenei bideratua dago, domeinu-izenak eskatzeko eta babesteko balioko du.

Zu zeu: http://zueu.eus/2014/09/17/eus-domeinu-izenak-eskatzeko-epa-ireki-da/?utm_source=feedburner&utm_medium=feed&utm_campaign=Feed%3A+zueu

Urriaren 2an hizkuntza-kudeaketa enpresan inguruko 9 edizioa Elgoibarren (30+10 mintegia)

Enpresa, erakunde eta ikastetxeentzat baliagarriak izan daitezkeen euskarazko zerbitzu esperientzia eta praktika onak azalduko dira aurtengo 30+10 mintegian IMH Makina Erremintaren Institutuan.

Sustatu: http://sustatu.eus/edurnebilbaomaiza/1411570580?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Euskara lehentasunezko hizkuntza izango da Gipuzkoako Aldundian

Gipuzkoako Foru Aldundiaren hizkuntzen kudeaketan euskarari lehentasuna emango dion dekretua onartuko du foru erakundeak datozen asteotan.

Euskararen jatorria: <http://euskararenjatorria.net/?p=14954>

Euskara, inork lagundu gabe

Euskara norbere kabuz eta Euskal Herritik kanpo ikas daitekeela probatu dute euskaldun berri autodidaktek; Internetek eskainitako baliabideei esker hizkuntza menderatzeko gai dira. Euren prozesua azaldu dute hiru pertsonak.

Berria: http://www.berria.eus/paperekoa/1833/038/001/2014-09-26/euskarainork_lagundu_gabe.htm

Urkullu: "LOMCEk ez du lortuko euskal hezkuntza sistema hondatzea"

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ziurtatu du, "orain arte bezala", Jaurlaritzak modua aurkituko duela Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreformari, ahal den neurrian, ihes egiteko. "LOMCEk ez du gure sistema zimurtuko", berretsi du.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/96152/urkullu_lomcek_uzdu_lortuko_euskal_hezkuntza_sistema_hondatzea.htm

"Euskaraz bizi nahi dut" film laburren lehiaketa Zinemaldian

Donostiako Zinemaldiak eta Kontseiluak "Euskaraz bizi nahi dut" film laburren edizio berria aurkeztu dute. Hizkuntza zinematografikoaren bitartez euskaraz bizitzearen nahia irudikatzea da lehiaketaren helburua.

Argia: <http://www.argia.com/albisteak/euskaraz-bizi-nahi-dut-film-laburren-lehiaketa-zinemaldian>

Mintzapraktika egitasmoak abian, euskaraz "lotsarik gabe" mintzatzeko

#lotsarigabe lemapean, AEK-k abian jarri du 2014-2015 ikasturteko mintzapraktika programetarako kanpaina. Mintzapraktika egitasmoetan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete jada euskaltegietan, euskara zerbitzuetan eta praktikatu.org webgunean.

Argia: <http://www.argia.com/albisteak/mintzapraktika-egitasmoak-abian-euskaraz-lotsarik-gabe-mintzatzeko>

EHE: "Euskaldunak euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eraman nahi ditugu"

Hiru ildo nagusi lehenetsi ditu Euskal Herrian Euskaraz egindako nazio batzarrean: euskaldunak "euskararen alde egotetik euskararen alde egitera", hizkuntza politika "eragingarri eta ereduagarriak" indarrean jartzen dituzten udal edo herriko etxeak babestea eta euskaraz biziko den herria eraikitzeko ikasle euskaldun eleanitzak "euskal curriculumaren baitan" heziko dituen hezkuntza eredu bat izatea.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/96164/ehe_euskaldunak_euskararen_alde_egotetik_euskararen_alde_egitera_eraman_nahi_ditugu.htm